



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ERABAKIA, 2025eko MARTXOAREN 26koa, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLE-IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ ZUZENTZEN DEN 2025eko OTSAILAREN 27ko ERABAKIA, IRAKASLE AGREGATUEN PLAZAK BETETZEKO LEHIAKETARAKO DEIALDIA EGITEKOA.

GERTAKARIAK

Lehenengoa. - 2025eko otsailaren 27ko erabakiaren bidez, UPV/EHUn irakasle agregatuen plazak betetzeko lehiaketarako deialdia egin zen, eta 45 zenbakiarekin (barneko kodea: PADCL2-D00093-12) Mikrobiologia jakintza arloko plaza zehaztu zen, eta 102 zenbakiarekin (barneko kodea: PADCL2-D00093-15) Mikrobiologia jakintza arloko plaza bat.

Bigarrena. - Deialdi horretako plazen agirian, akatsa antzeman da, aipatutako plazetan ez baitago zehaztuta zein jarduera bete behar den.

PADCL2-D00093-12 barne kodea daukan plazaren kasuan (deialdiko 45 zenbakiduna), hau zehaztu behar da jardueran: «Mikrobiologia eta Parasitologia Orokorra».

PADCL2-D00093-15 barne kodea daukan plazaren kasuan (deialdiko 102 zenbakiduna), hau zehaztu behar da jardueran: «Mikrobiologia»

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. -Irakasle-ikertzaileen errektoreordeak eskumena du, eskuordetzaz, erabaki hau emateko, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Erabakia, errektorearen eta bere gobernu taldeko kideen ordezkapenei buruzkoa, dela bide.

Bigarrena. -39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, honako hau dio 109.2 artikuluan:

Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Horregatik guztiagatik, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa. - Zehaztea jarduera PADCL2-D00093-12 barne kodedun plazan, hau da: <<Mikrobiologia eta Parasitologia Orokorra>>.

Bigarrena- Zehaztea jarduera PADCL2-D00093-15 barne kodedun plazan, hau da: <<Mikrobiologia>>

Hirugarrena.-Hamar eguneko epea ezarri da eskabide berriak eta dokumentazio osagarria aurkezteko.

Laugarrena.- Jakinaraz bekio erabaki hau dagokion sailari eta argitara bedi unibertsitatearen webgunean (Irakasleak–Deialdi bideratuak). Har beza kontuan Irakasle-ikertzaileen Zerbitzuan hala dagokion atalak.

ERREKURTSOAK

Erabaki honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioke UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke zuzenean Bilboko administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasita.

Leioa, 2025eko martxoaren 26a

Iz.: Efren Areskurrinaga Mirandona
IRAKASLE-IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEA